

Martin Ugalde

[Egile ezezaguna]

Aiurri, Zenbaki berezia 1, 1997: 8-10.

Andoainek gerra inguruko urtetan zuen itxuraren deskripzio izugarri polita egiten du Martin Ugaldek "Pedrotxo" nobelan. Protagonistak kontatzen du nola egiten duen Ospitale Zaharretik Zumeainoko bidea Joxe Arretxe agurearen atzetik.

Geratu zen Jose Arretxe Maximinoren taberna aurrean, eskuineko eskua txapelaraino jaso zuen eta, gudariek ohi duten modura, adi batean, egin zuen itzuli laurdena, burua altxa eta esan zuen orduan (entzun nion!) "Egun on" jendartera bezala, eta geldi geratu zen tabera barrura begira; niretzat barrualdea ilun geratzen zen.

Geratu nintzen aurrez aurre zegoen errotako espaloian, eserita, artirinaren usain gozoa aidean, eta han ikusten dut, kalea tarteko, tabernaria kikara bat kaferekin irteten; Joxek burua jaitsi zuen eskerrak gizabidetsu emateko, eta kafea patxadan hartu zuenean, berriro... orain belauniko erdia eginez, ez gehiago, aldare aurrean bezala, agurtu zituen tabernaria eta berarekin irten ziren bezeroak, hauek barrezka, eta bide beretik ezkerretara itzulia egin eta han doa oraindik mantsoago "Bonboneneko" etxearen aurrean hasten den malda igotzen.

Harritua nengoen.

Ni atzetik beti, noski. Joxeren ikusmena nahiko kaxkarra zegoen ordurako, baina ongi entzuten zuen, zeren eta, malda erdian zihoala elizako erlojuak hamar tanto jo zituenean, geratu eta makilarekin lurra hamar aldiz jo zuen, alabarderoen modura, konpas justuan, eta abiatu zen berriz goardia zibilaren koartel azpitik elizaurreko plaza erdiraino, hemen gelditu, eskuinera jira. Aitaren egin, gero bi alditan ezkerrean, eta inork deitzen ez zionez gero, jarraitu egin zuen Elizondoko tabernatik aurrera; bost pausora zeukan iturriko ur garbitik txurrut bat egin ("hau kalderarako") eta kontsejupean pelotan zebiltzan "Ederra", "Xope", sakristaua, alprojoideei kasurik egin gabe, ilea hartzea besterik ez baitetorkioke hortik!, eta Arreseko taberna, Tronpoleon goxodendatik barrena hor doa malda behera orain, beti mantso, elegante, "Ondartza"ko baserritik behera, "Txistoki"tik datorren tranbearen zaratak aduratzen duen arte, eta geldi, "kieto parau", makina zaratatsu hura pasatzen den artean, eta Basteroko taberna eta Juanito barberuaren artetik Kantoi zahar eta berria, Toloxaren eskola (nire piperra!) atzean utzi eta gero bizkorrago, halere martxa apalean, kinkaileriatik, Txurreroanetik, Kantoi berriko kandela usainetik, Malintxuri, Estanku, Arregiren harategi eta Kooperatibatik barrena Leitzarango zubia iragan eta berehala egiten du ezkerreko biratxo, txapela errespeto handiz kendu, buruarekin agur luze bat, elizatzuan beti errespetu horren zain dagoen Gurutze Santuari isilkako zerbait esan eta gero lehen egin duena desegin eta ttpa-ttpa indarberritu balitz bezala Alonsoneko malbabiskoko karameluak ahoan espiritualki urtzen zaizkiola, Germana txikiaren jostailudenda eta zapategi eta Axentxioneko goxodendatik aurrera, Olajaunanetik aurreraxeago (atea itxia dago eta seguraski Joxemari ibaiatz bestaldeko

baratzan ari delako) Maindiko dena, eta aurrean daukan etengabeko ura dariola oraindik bizi den iturri ederrean beste tragotxo bat edan ("horrek ez du inor moxkortzen eta"), gero Gipuzkoako Banketxetik ("sosik gabe oraindik") pasa, eta Jexuxen Bodega eta Estanix barberuaren aurreko gasolinera pasatzera zihoala, deitzen dio honek; txantxetan sarri hitz egiten dionari kasu egin behar eta gelditzen du martxa...

Ni, beti atzetik, Barberia osoa Joxeri hurbiltzen zaionean; esertzen naiz Artolaneko dendaren eskaileran eta ikusten dut sekula pentsatuko ez nuen Joxe Arretxek montatutako zirkua, dena eguzki ederretan; Joxe Arretxe korruaren erdian, eta Estanix da galdera jaurtikitzen diona ("ezkerrez, ezkertea baita").

"Urrutitik hator"...